

Soziolinguistika albistaria

2016ko azaroak 30-abenduak 15

Soziolinguistika Klusterra

[Azpeitian, hitanoaren presentzia neurtzen eta lantzen.](#)

Abenduaren 2tik 10a bitartean AzpeitHika gaztetxoek kartel erakusketa izango da Sanagustin Kulturgunean. Azpeitian hitanoaren erabilera eta haren arauak nola bizi dituzten landu dute Azpeitiko ikastetxe guztietan 10 urteko gaztetxoek.

Ikerketak

[Euskararen erabileran jauzi egiteko aukera dago Araban](#)

Euskararen erabileran jauzi egiteko aukera dago. Arabarren euskararen ezagutza, erabilera eta iritziak, 2015 ikerketa soziologikoaren ondorio nagusia da herrialdean euskararen erabilera ez dela handitu ezagutza bezainbeste, nahiz eta testuingurua askoz hobea izan.

[Euskararen arnaguneei buruzko erreportaje zabala, Gipuzkoako Hitzan](#)

Aste honetako Gipuzkoako Hitzak azala eta hiru orrialde eskaini dizkio udalerririk euskaldunenetan euskararen ezagutzak eta erabilerak izan duen bilakaerari. "Udalerrri euskaldunetan, batez ere txikietan, jaisten ari dira euskararen ezagutza eta erabilera datuak.

[Es presenta el IX Informe sobre la situació de la llengua catalana \(2015\)](#)

El 2015 va cloure una etapa molt negativa en la història social de la llengua catalana. Al mateix temps, el canvi en l'escenari sociopolític dels territoris de llengua catalana en va obrir una altra amb un horitzó d'esperança renovat.

Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak

[Doctorat en sociolingüística a la UOC](#)

Vols fer el doctorat en sociolingüística? A la UOC no seràs el primer, o la primera. Sol·licita accés al Doctorat en Societat de la Informació i el Coneixement, dins la Línia de recerca "Cultura societat i llenguatge" (Identitat).

[Donostia eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikotik](#)

Donostia eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikotik aztertzeke mintegia antolatu du Euskaltzaindiak Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua proiektuaren baitan. Mintegia abenduaren 20an egingo da, Luis Villasante ikerguneari (Donostiako Euskaltzaindiaren e...

[Hizkuntza aniztasunari buruzko programazio zabal batekin amaituko du urtea Donostia 2016k](#)

Donostia 2016k hizkuntza aniztasunari buruzko programazio zabal batekin bukatuko du urtea. Hizkuntzekin,

aniztasunarekin eta hizkuntza-eskubideekin eta horiek elkarbizitzan duten rolaekin lotutako hainbat proiektuk abenduko programazioa aberastuko dute.

Liburuak eta artikulu zientifikoak

[Liburu Berria: Euskara irabazteko bidean](#)

Euskara biziberritzeko bidean aldaketak datozen sentsazioari eutsiz horren inguruko liburua argitaratu da.

Bestelakoak

[Hizkuntza gutxituen ofizialtasuna eta lehentasuna eskatuko du protokoloak](#)

Hilaren 17an aurkeztuko dute Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Esparruz esparruko neurriak ezarriko ditu: besteak beste, hizkuntza gutxitua doan ikastea eta neurrien epeak zehaztea.

[Mandan hizkuntzak azken hiztuna galdu du](#)

Edwin Benson hil da 85 urterekin, Mandan hizkuntzak zeukan berezko azken hiztuna. Egun 1.200 Mandan daude, baina ez dira beraien jatorrizko hizkeran mintzo. Dena dela, Mandan hizkuntzaren ezagutza sustatzeko egitasmo bat badaukate, halako kasuetan AEBetako indiarrek nahiago baitute "loak hartutako hizkuntza" terminoa erabili, "hizkuntza hila" baino.

[16è Premi Jaume Camp de Sociolingüística per a Natxo Sorolla per "Tria de llengües i rols sociolingüístics a la Franja"](#)

16è. Premi Jaume Camp de Sociolingüística per a Natxo Sorolla i Vidal, pel seu treball "Tria de llengües i rols sociolingüístics a la Franja des de la perspectiva de l'anàlisi de xarxes socials".

["Komeni da hizkuntzaren biziberritzean espiritualtasunaz hausnartzea"](#)

Kolonbiako Kauka eskualdean bizi den Nasa herriari buruzkoak ekarri ditu Garabideko Mikel Mendizabalek gurera. Nasa yuwe da bertako hizkuntza eta azken urteetan beherakada handia izan du. Hargatik, bertako Toribio eskualdean apustu handia egin dute: 30 urte barru Toribioko haur, gazte eta helduak nasa yuwe hizkuntzan bizitzea.

["L'euskara est une référence pour les langues minoritaires"](#)

Xan Aire coordonne le projet linguistique de Seaska. Plus précisément, il travaille sur la place du basque dans l'environnement des enfants via le programme "euskaraz bizi", vivre en euskara.